

# 13-04-2024

Gure urteroko mendi irteera Sagardotegi batean amaitzeko, aurten Amorebietatik Belatxikietara igoko gara, eta UXARTE sagardotegian borobilduko dugu eguna. Anima zaitez.



Santa Luzia auzotik igoko gara, eta AHTren bidea zeharkatu eta gero, basoan sartuko gara bide eta bidezidorrak jarraituz. Ibaizabal ibaiaren bistak izango ditugu noizbehinka eta paintball gune bat ezkerrean utzi ondoren, gora jarraituko dugu, Belatxikietaraino (661).

Jaitsiera GR ibilbidea jarraituz egingo dugu, Mandabieta iturritik pasako gara eta geroago Montorra auzora doan bidea hartuko dugu, bertan sagarrondoak ikusteko aukera izango dugu.

Azkenik, errepidea kontu handiz zeharkatu ondoren, UXARTE sagardotegira helduko gara.



Leku mugatuak dira sagardotegian, 35 gehien jota. Gauzak errazteko ez utzi azken ordurako izen ematea.

**Prezioa 40 €.**

Izena emateko ezinbestekoa da aldez aurretik ordaintzea klubaren kontuaren bidez zure izena aipatuz, eta weborri honetako izenemate orria betetzea, ordain-agiria erantsiz. Hori errazteko, pertsona batek beste batzuen erreserba ordaindu eta egin ahal ditu dana batera.

**Rural Kutxa-Caja Rural de Navarra: ES21 3008 0273 92 2445697325**

---

**Bizkaiko sagardo eta aurtengo uztari buruzko artikulua NAIZ egunkarian**

Compártelo:

[Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on X \(Opens in new window\)](#)

[Click to email a link to a friend \(Opens in new window\)](#)

## DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota	Egun bakarreko zeharkaldia oinez.
Kokapena	
Metatutako desnibela	+ 600m/ -600m
Luzera	11 km
Jardueraren iraupenaren aurreikuspena	

## Elkartzeko tokia eta ordua

8:30 Trauko 27 . (Gailurra)

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Euskotren Amorebieta ( Zubizabala kalea) - Uxarte Sagardotegi

## Irteerarako izena emateko azken eguna

04-04-2024

## Jakin beharreko kontu teknikoak

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

## Material tekniko beharrezkoa

Jarduerarako eta urte-sasoarako egokiak diren mendiko arropa eta oinetakoak. Bastoiak. Auzotik ateratzen bazara, beste motxila txiki bat eraman dezakezu, aldatzeko arropa eta oinetakoekin . Motxila horiek kotxe batean eramango ditugu sagardotegira.

## Bestelako oharrak

## Argibide gehiago

Jose 6502974zero8 - 22.15tik- 23.00etara, eta asteburuetan

